



OHARRA

EKINTZAREN DATA:

2017- 06 – 14 SARREREN BANAKETA // 2017 – 06 – 16 JAIALDIA

NORI ZUZENDUA: HH/ LHko GURASOEI/LEGEZKO TUTOREEI

IGORLEA: ZUZENDARITZA TALDEA + ZUTARRI GURASO ELKARTEA

GAIA: JAIALDIA 2017

Urtero bezala, ikasturte bukaerako jaialdia ospatzera goaz. Denon parte-hartze eta esker onez hainbat urtetan ikastolan landu, garatu eta ospatu izan dugun festa da.

Aurtengoa, **ekainaren 16an**, ostirala, **19:00etan** egingo dugu.

Guztion segurtasuna bermatzeko, iaz bezala, honela zehaztu dira aurtengo ekitaldiaren antolakuntzan erabiliko ditugun irizpideak:

- Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarain eta Urola Ikastolako DBH1. mailan dauden ikasleen familia bakoitzak bi sarrera txartel izango ditu. Sarrerak **ekainak 14an** banatuko dira.

Sarrera hauen banaketa ikastolan egingo da eta guraso/tutore legal bakoitzak bere **seme-alaba gazteenak ikasketak egiten dituen eraikinera** joan behar du hauek jasotzera. Guraso edo Legezko Tutore ez den beste norbaitek sarrerak jaso ditzake, beti ere, jasotzeko orduan, jasotzailearen NAN zenbakia eta sinadura adieraziz. Banaketaz Zutarri guraso elkarteko kideak arduratuko dira.

SARRERA BANAKETA

Eguna: Ekainak 14, asteazkena.

Ordua: Goizez: 09:00-10:00

Arratsaldez: 15:30-17:30

Lekua:HH: Euskal Herria kalea 50. Idazkaritza aurrean.

LH: Perdillegi kalea 2. Atezaintza aurrean.

- Ikastolako guraso elkarteko kideak izango dute ikusleen sarrera nahiz kokapena bideratzeko ardura. Horretarako janzkera islatzaileak (erreflektanteak) erabiliko dituzte eta beraiena izango da aginte guztia.

- HH, LH eta DBHko ikasleak kantxan egongo dira.

Denon asmoa ekintza festa giroan ospatzea da. Horrela izango delakoan, jaso ezazue gure gonbitea.

Jaialdian ikusiko garelakoan,

Agur bat!